


- **DISTANTZIA:** 22,5 KM
- 🕒 **AURREIKUSITAKO DENBORA:** 7 H 30 MIN
- ↗ **DESNIBELA:** 480 M


GR® 321

ERREGE-BIDEA. 1. ETAPA

BURGI-IZABA



 **HASIERA:**
BURGUI/BURGI

-  **OHARRA:**
- NA-137
 - Bideko Ama Birjinaren baselizaren inguruan, bi urkorronte zeharkatu behar ditugu. Haien emaria urteko sasoiaren arabera aldatzen da: udan lehor egon ohi dira, baina euri-garaietan nabarmena izaten da.

Errege-Bidea ibarra hegoaldetik iparraldera zeharkatzen duen ibilbide lineal interesgarria da, herriak lotzen zituzten bideak erabiltzen dituena. Lehen etapa Burgiko zubi erromanikoaren ondoan hasten da, eta iparralderantz doa Bideko Ama Birjinaren baselizaraino, betiere Ezka ibaiarekiko paraleloan. Aurrerago ibilbideak NA-137 errepidea zeharkatu eta beste ertzetik jarraitzen du iparralderantz, Erronkariraino. Han berriz zeharkatu behar da ibaia, ezkerreko ertzetik Urzainkirantz joateko. Handik aurrera etapako igoyerarik gogorrena hasten da, bide polit batetik, azkenik Izabara jaisteko.

 **HASIERA. GR® 321. BURGI-IZABA**